



DANI BLANCO

**Amaia  
Lasa  
Alegria**



IDAZLEA

## Sabel alokatua

FILOSOFOEN teoriari gainbegiratu bota-tzen badiegu emakumeez mintzatzen zirenean oso nahastuta ibili zirela ohartuko gara, gizonen izaerari buruz pentsatzen zuten gehienbat eta ez emakumearen izaeraz. Pentsalari horietzat beren berdina beste gizon bat zen.

Horrelako zerbait gertatu zitzaion Aristotelesi —ez dut zalantzan jartzen buru argitsua izan zenik—. Bere garaian biologiaren inguruan ideiarik aurreratuenak izan zituen honek zera kontatzen zigun: andrearen umetokian gizonak zigotoa jartzen zuela, uteroak gaur egungo inkubadora bat lez jokatzen zuela, umetokian bertan umekia garatzen zela haur izan eta jaio arte.

Badirudi, XXI. mendean horrelako zerbait uste duen jendea badagoela oraindik ere, uste horren adierazleak sabel alokatuak ditugu. Egungo gizartean murgildurik gauden norabiderik gabeko merkatu erraldoi honetan emazteen sabelak alokatzen dira. Horiek azokako edozein produktu balira bezala eskaintza-eskariaren legepean daude.

*Duela hamarkada batzuk mugimendu feministek ernalkuntza modu hauen aurrean etenaldi bat eskatu genuen, andrearen sabela laborategi bihurtu ez zedin, baina dirupean mugitzen diren zientzialariek jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuten*

Hasiera batean, 1975. urtean, Amerikako Estatu Batuetan (AEB) andreak beren sabelak eskaintzen hasi zirenean, egoera ez zen hain gordina eta askok pentsa zezaketan antzua ziren bikoteei laguntzen zirela diru ordainen truke.

Orain sabel alokatzea milioiak sortzen dituen industria da. *In vitro* ernalkuntza prozesuak sendagileak, sendagaiak, anestetia... eskatzen ditu. Emaztea ez da lehenengoan haurdun geratzen. Sabelaren alokairua ordaintzen da, ahalik eta merkeen noski, legeak irakurtzen dakiten abokatuak eta bitartekariak tarteko, guzti hau

agentzia espezializatu batzuekin harremanetan jarri ondoren burutzen baita.

Ernalkuntza mota hauetan egoera bat baino gehiago aurki dezakegu: “Ama eramaileen” kasuan emazteari umetokian bere gorputzetik kanpo sortutako zigotoa ezartzen diote. “Ama ordezkariak” obulua eta uteroa jartzen ditu, aitak aldiz espermatozoidea. Hirugarren kasu bat ere badago, bikotearen bi partaideak antzua direnean, orduan beste norbaitzuen obulua eta espermatozoidea erosi beharko dituzte.

Sabelaren jabea diru ordaina jasotzen hasten da bihotzaren lehen taupadak entzutean, gero hilero sendagileek baiez-tatzen dute umekia aurrera doan ala ez. Zer gertatzen da umeki horretan malformazioen bat aurkitzen badute? Abortatu egingo du? Umekia hiltzen bada? Berriro hasi beharko da? AEBetako ernalkuntzak garestiak suertatu dira, gaur egun sabel merkeagoen bila Indiara, Perura... joaten dira, emazte txiro gehiago dagoen herrietara. Nora bestela?

Ez nabil ni moralista edo inoren epaile izateko asmoz, arazo horren aurrean hausnarketa egiteko behararekin baizik. Duela hamarkada batzuk mugimendu feministek ernalkuntza modu hauen aurrean etenaldi bat eskatu genuen, andrearen sabela laborategi bihurtu ez zedin, baina dirupean mugitzen diren zientzialariek jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuten. Guztiz kezagarria da gainera, kontratuetan eskatzen den isiltasun klausulak guztia ilunpean uzten du baitu. Ezin dugu esan emakumearen eta zigotoaren artean ez dagoenik loturarik, umeki bihurtu dadin emakumeak bederatzi hilabetez zilbor-hestearen bitartez arnasa, janaria, berotasuna, odola... ematen dizkio. Kontuan izanik sabela behin baino gehiagotan alokatu daitekeela, zer gertatzen da emazte horien baitan?

Galdera asko erantzunik gabeko merkatu horretan. Era askean jokatzen dugunean bakoitzak daki zer egin behar duen. Negozioa, dirua, irabaziak tartean sartzen direnean egoerak ez dira hain argiak. ■

